

## **KONTROL MOZIOA**

### **HIRIKO PARKEEN MANTENUA DELA ETA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko irailaren 14ean Gune Publikoen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

COVID19ak eragindako osasun-alarma egoerak erakutsi edo gogorarazi dizkigun gauzen artean espazio publiko irekien garrantzia dago. Azkeneko hilabeteetan plazak, hondartzak, mendiak, kaleak, parkeak... bihurtu dira herritarren topagune eta aisialdiaren oinarri. Haur eta nerabeen kasuan, jolasteko eta kirola egiteko guneen beharra ikaragarria izan da, kontuan izanda hezkuntza eta kirol ekintza guztiak bertan behera gelditu direla orain arte.

Hauek horrela, espazio publiko garbi eta seguruak bermatzeko unea dela deritzogu. Urtero aurrekontu bat bideratzen da hiriko jolas parkeen mantenturako (hain zuzen ere, 225.000 euro 2020an) eta urtearen azkeneko hiruhilekoan gauden honetan hiriko parkeen mantenu beharrak handiak dira. Katalunia plazako parkea da horren adibide, aste honetan bertan hainbat erabiltzailek egindako kexetan ikusi daitekeen bezala.

Hilabete honetako batzordeetan, delegatuak adierazi digu 2020ko parkeen mantenturako aurrekontutik (225.000 euro) 125.000 euro gastatu direla eta gelditzen diren 100.000 euroekin, hain zuzen ere, honako parke hauek konpondu nahi dituztela: Nafarroa Behera, Igara, Baldomero Anabitarte, Katalunia Plaza eta Araba parkea. Kontuan izanda urtea bukatzeko 3 hilabete falta direla, zaila ikusten dugu hobekuntza horiek aurten egitea.

Bestetik, hiriak urteetan izan duen gune estalien beharra inoiz baino nabarmenagoa da orain, esan bezala, garai honetako aisialdirako espazio publiko irekien garrantzia kontuan hartuta. Behar hau behin eta berriro gogorarazi diogu udal gobernuari, baina gaurkoz ez dago inolako plangintzarik edo proiekturik.

Inguruko udalerrri batzuek, plangintza bateratua egin dute hezkuntza komunitatearekin batera, parkeen egoera hobetzeko eta hainbat espazio publikoren erabilera lehentasunez eskolen esku jarritz, haur eta gazteen aisialdirako zein hezkuntzarako eskubidea osasun berme handienekin gauzatu dadin.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

## **KONTROL MOZIOA**

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, hiriko hezkuntza komunitatearekin batera plangintza bateratu bat egin dezala, hiriko jolas parkeen egoera hobetzeko eta erabilera lehentasunez eskolen esku jarritz.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, 2021 urteko aurrekontuan gune estalien beharra kontuan hartu dezala, horretarako inbertsio bat bideratuz.
- 3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Katalunia Plazako jolas parkearen mantenu beharrak ikusita eta parkearen erabilera handia dela kontuan izanda, lurzoruak behar dituen konponketak lehenbailehen egin ditzala.

Donostian, 2020ko irailaren 18an

Olaia Duarte López  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**